

EGIAREN ASKATASUNA

«Egiak askatu egingo zaitue». Berba oneek Ebanjelioan datoz. Jesukristorenak ditugu. Españako gotzainen karta-pastoralaren izenburuan be, berba orrexeek agertzen dira. Gotzainen idazki au, azaroan, kaleratu zan. Kostau jakon urtetea. Ixe bi urte. Batean Juan Guerra dala eta bestean Rosendo Nasseiro edo, or illunpetan egon da. Karta orren mamia ez dabe nai izan gotzainak kasu konkretu batzukin nastatzerik. Ori baino ikuspegi zabalagotik dabiz obispuak.

Gozainen eskribua kaleratu ta berealaxe inondiko diskusio garratzak sortu dira. Batez be Españako gobernuaren menpean dagozan komunikabideetan entzun dira entzutekoak. Gobernuko jauntxoen pare jo dabe txilifia euren akolitotxoak be. Ta zelako txilin otsa gainera! Ori bai, betiko antiklerikal-turutaz lagunduta. Emeretzigarren mendeko doinu zaarrak zelako autsa atera izan daben. Gure artean olako edo alako prejuizioak izaten diran nagusi.

Elizaren jokabide edo gauzaren bat gustatzen ez jakunian, beingoan Inkisizioa eta Galileo eta Frankoren denporak errepikatzen asten gara. Betiko bi-iru trapu zaar astintzen. Ni neuk ez dakit norainoko egia izango dan histori orreetan. Egia

izan da be, ez dira ainbeste disparate ogei mende barruan egiteko. Zenbatek urte gitxiagotan egiten dabezan askotaz bildurgarriagoak. Baina ondo datorkuz egiaren askatasuna zapaltzeko, klitxe zaar orreek bein eta barriro erabiltea. Españatxo maitean a zelako erresultatu eraginkorra izaten dabezan zoriontsuzko musika orreek. Beti be, orretarako belarriak zabalik eta adi.

Beste orrenbeste gertatu da gotzainen txostena kritikatzean be. Doinuaren edertasuna alboratu eta soinu jotzaileari jipoia berotu. Esaterako, legea eta morala askotan ez datozala ados esan dabelako, a zelako egurre artu daben gotzainek. Demokraziaren aurka dagozala eta abar. Ta ori ez da egia. Buru pixkat daukan edonok ikusten dau berezitasun ori. Mila kasuren artean, Hitlerren kasua aipatzea besterik ez dago. Alemanen botuekin eldu zan Hitler gobernura. Demokraziaren bidez lortu eban Alemaniako agintaritza. Baina orrek ez dau nai esan bere jokabidea eta lege guztiak bedeinkatuak ziranik. Ezta antsik be. Legea eta morala ez datozala beti konforme esatea, ez da demokraziaren aurka joatea. Ez orixe. Moral bako legeak ez dautso demokraziari mesederik egiten. Beste arazo askoren artean, gotzainen asmorik ederrenetarikoa, Españako demokrazia zaintzea be bada. Ta argi ikusten da asmo ori karta-pastoralean.

Inkesta xelebrea

Ez da arritzekoa gotzainen agiria kritikatzea. Ori ez da pekatu. Arrazoizko kritikak mesede baino ez dabe egiten. Kritika orreetan geien arritu nabena beste au izan da: kritikatzeko eskubidea gotzainei ukatzea. Eskubide ori ezin dautsagu inori ukatu bear. Ezta gotzainei be. Ta arritzekoa da periodista berberak Españako gotzainei sozial-arazoetan parte artzea ukatzen dautseen bitartean, Ego Ameriketako gotzain batzuen agiriak goratzen diardu. Ez dau periodista orrek lojika askorik erakusten. Bai, oster, bere interes politikuak edo bere barneko konplexu korapilotsuak.

Kritikatzeko orduan, ondo legoke gauzak ez nastatzea. Gotzainak ez dira Eliza osoa. Elizaren arduradunak besterik ez dira. Esaterako, Felipe Gonzalez ez da España osoa edo Ardanza ez da Euskadi osoa. Bata Españako presidentea eta bestea Euskadiko lendakaria baino ez dira. Gauzak bereizten ez diranean, errez sartzen dira gauza guztiak saku berean. Ta orixe gertatu da gotzainen agiriaz be.

Gauza xelebrea beste au izan da. Gotzainen esaldirik matrakatsuenak kontuan artu ta inkesta serio bat egin izan da. Ori bai, gotzainen fraseak diranik esan barik. Ta or agertu dan erresultatua auxe izan da: erritarrak, geiengoa beintzat, oso ados datorrela gotzainen esaldiekin. Ixe eundik larogeitamar. Ikusten denez, gure gotzainak erriaz lotuta bizi dira. Ez dabiz lañutan dantzan eta gitxiago erriaz brometan. Erriaren arazoak barnebarnean daroetz. Ta ori eskertzekoa da.

Pentsetekoa da beste au be. Arrezkero Frantziako sozialista talde batek eskribu sonatu bat argitaratu dau Le Monde egunkarian. Frantziako sozialisten txostenaren ardatza eta Españako gotzainen karta-pastoralaren ardatza, berbera dala esan leike. Gotzainak eurak be autortu dabe adostasun ori. Ta emengo kritikariak enterau be ez dira egin. Beste orrenbeste gertatu jaken Europa ekialdeko komunismoaz be. A zan gure sasi-intelektualentzat munduko paradisua. Orain danok dakigu erri orreentzat, komunismoa itzelezko ondamena izan dala. Errumaniako Petre Romanek, Españako telebistan autortu ebanek komunismoa bai ekonomi mailan, bai politika mailan eta batez be moral mailan, frakaso mortala izan da. Ta ori ixildu bai, baina ukatzeko kapaz danik, ez dago inor.

Españako Elizak, gaur egunean, ez dauko inondiko politiko botererik. Ezta ekonomi botererik be. Beste gauza bat da bere autoritate morala. Gizaldietan zear irabazitako prestjioa baino ez da ori. Karta pastoral onek sendotu eta indartu egingo dau Elizaren

prestijio morala. Merezi dau gotzainen karta ori irakurri ta ausnartzea. Egi biribilak dakaz eta errespeto aundiz esanda gainera. Errezena demagojia egitea izaten da. Ta ori edozein buruberok egin leike eta egiten dau. Baina ezin dau edozeinek gotzainen antzeko idazki sakon, errespetutsu ta serioa kaleratu. Orretarako egiaren zerbitzuan ari bear da ta ez onen edo aren interesen alde.

Arrapaladan bizi garanontzat, baliteke agiria luzeegia izatea. Frantziako sozialisten txostena estilo aldetik gaurkotasun geiago dauko. Laburragoa danez, errezago irakurtzen da. Frantsezak, beti be, gauzak azaltzen maisuak izan ditugu. Deskartesen pentsamoldeaz markauta datorkuz mundura.

Karta pastoral au, azken baten, erriaren zerbitzuan dator. Orixe da Elizaren eginbear edermenetariko bat. Munduaren zerbitzuan saiatzen ez dan Eliza, ez dau ezertariko balio. «Gatza gazatzen bada, zerez gatzitu? Ezetarako be ez da, kanpora jaurtiteko ta gizonen ankaperako baino». Elizaren fundatzailearen berba dira oneek.

A. Olea